

**EDITH STEIN  
(JULEN URKIZAREKIN ALKARRIZKETA)**

Nahiz eta gehienok, *Karmel* aldizkariaren zuzendari dogun Julen Urkiza euskerazko lanekin lotuta ezagutu, baditu makina bat lan eder alemanez eta gazteleraz be. Besteak beste, Edith Steinen obra guztiak, bost liburu marduletan, alemanetik gaztelera itzulita. Izugarritzko lana Julenek burutu dauana! Beragana jo dot honetaz alkarrizketa bat izateko asmotan. Irribarretsu eta txeratsu hartu nau bere liburuz eta paperez beteriko langelan. Eta prest nire galderei erantzuteko.

**Andoni Olea:** Nondik nora sortu jatzun Edith Steinen obra guztiak gaztelerara itzultzeko asmoa?

**Julen Urkiza:** Bizitzan askotan proiektuak sortzen dira batbatean edo lagunen batek bultzatuta. Nire bizitzako lanik handienak era horretara sortuak dira. Edith Steinen idazlanekin be bardin. Bein batzar luze baten, adiskide bat neukan alboan. Berau kultura zale eta Edithen filosofia oso maite dauana. Hauxe esan eustan: “Komeniko litzake Edithen lanak gazteleraz jartzea, zuk aleman dakizunez, animatu beharko zeunke”.

Eta batzar luze hori amaitu ondoren, hasi nitzan kontuak egiten: zenbatera joko leuken bost bat liburu mardul argitaratzek. Deitu neutsan esanez: “Ekonomia aldetik ez da niretzat posible”. Eta orduan bere erantzunak jota laga nindun: “eko-

nomia ez da zure arazoa, horretaz neu arduratuko naiz”. Eta ezin atzera egin, eta hasi nintzan kolaboratzaileen bila, batez be Gaztelako eta Burgosko karmeldarren editorialetan. Elkarlaguntza beharrezkoa zan hain edizio handia eta karua aurrera erodateko. Kontuan izatekoa da Edithen idazlanak bere hizkuntza jatorrizkoan, alemanez, 25 liburu ataratzen ari dirala.

**A. O.** Merezi dau gaur egun horren kostu handiko edizio bat kaleratzea?

**J. U.** Pertsonaia oso gutxi aurkitu geinkez, gaur egun, munduko historian zehar Edith Steini buruz argitaratzen dan beste idazlan argitaratzen danik azken 20 urteotan. Bere aktualitatea geituz doa, batez be goi mailako kultura arloetan, maila akademikoetan, arlo espiritualean eta filosofikoan. Lehen be *Karmel* aldizkarian zenbaki bitan berari buruz idatzi genduan. Bere bizitza eta bere mezua oso aberatsak ditugu, bai feminismo ikuspuntutik eta bai fedeko eta filosofiko ikuspuntutik be.

1891.ean jaio zan Alemaniako Breslau herrian (gaur Poloniako lurraldea) judu familia baten. Judu fedea galdu ondoren, filosofia bidetik saiatu zan egiaren bila, baita filosofiko gai ikerketa sakonak egin be. Egia Kristorengan aurkituta gero bere horizontea zabaldu eta sakondu egin zan. Bere filosofiko ikerlanak beste sakontasun bat hartu eben. Munduko gerra bi handien sarraskiak barnetik jasan zituan. Juduen aurkako ekin-tzak alde batetik eta bere barruko Kristorenganako maitasunak eraginda bestetik, Karmengo Ordenan sartu zan, Koloniako Karmeldarren komentuan. Juduen aurkako erasoak geroago eta bildurgarriago zirala ikusirik, Edithek bere burua eskeini eutsan Jainkoari bakearen alde, Elizaren eta Karmengo Ordenaren eta Judu Herriaren alde. 1942.ean Auschwitzeko konzentrazio-esparruan hil eben, 51 urtekin.

**A. O.** Baegoan bere obraren bat gazteleratuta?

**J. U.** Bai, baziran lan batzuk argitaratuta, eta guk itzulpen horreek probetxatu ditugu. Baina gehienak itzulpen oso txar-

rrak dira. Idazlan nagusienak aipatzekotan, hona hemen: Edithen autobiografia, “Estrellas amarillas” izenarekin. Itzulpen eskasa. Beste lan bat “Ciencia de la cruz”, Lino Akesolok itzuli-ta. Itzulpen nahiko egokia. Edithen karta mordo bat be bai. “El problema de la empatía”: itzulpen ona berau. “La estructura de la persona humana”, eta “La mujer” itzulpen ez hain onak. Ba-dira Edithen “Obras selectas”, “Ser finito y ser eterno”, etab., baina itzulpen oso txarto egindakoak.

**A. O.** Zenbatek hartu dabe parte oraingo obra guztia itzul-tzen?

**J. U.** Gure taldeko itzultzaileak zortzi izan dira: Javier San-cho Fermín, Jesús García Rojo, Ezequiel Rojo, Constantino Ruiz-Garrido, Alberto Pérez, José Mardomingo, José Luis Caba-llero Bono, Carlos Díez, eta neurri apalagoan Gerlinde Follich eta ni. Lan handia benetan, bost liburu, 6.080 orrialde.

**A. O.** Zeintzuk izan dira oztopo larrienak?

**J. U.** Oztopo asko eta era guztietakoak. Baina hemen baka-ririk itzulpen lanen eragozpenak aipatuko ditut. Esan dodanez argitaratutako itzulpenak gehienak eskasak ziran. Batzuk goitik behera orraztu beharra euken. Hobeto izango zan barriro guz-tiz itzultzea... Pertsona bik itzultzeko berbea emonda gero, ur-teak igaro ondoren, ezertxo egin barik... eta oster a be, itzul-tzaile barriak aurkitu behar, etab...

Oztoporik larriena idazlanen barnekoa zan, hau da, idazlan handi batzuk filosofikoak izanik, eta batez be Edithen eta bere lagun en filosofiko hizkuntza berezia eta esaera egokiak auke-ratzea oso zaila...

Beste oztopo batzuk Alemaniako argitalpenak jarri euskue-zan, batez be idazlan autobiografikoak eta kartak. Itzulpenak egokitzen nengoala, konturatu nintzan alemanezko testu jato-rrizkoak ez egozala ondo... Eta orduan hasi nintzan, ez baka-ririk itzulpenak osotzen, baita ikerketa barriak egiten be. Eta Edith Steinen eskuizkribu guztiak milaka orri asko batu ni-

Ordens, nunmehr des Köthen und des Eichen  
Klosters, zur Leiterin für den Unglauben des  
jüdischen Volkes und damit der Herr von  
den Seinen aufgenommen werde und sein  
Preis komme in Betracht, für die  
Rettung Deutschlands und den Frieden  
der Welt; schließlich für meine Angehörigen,  
Lebende und Tote, und alle, die mir Gutes  
getan hat: daß Niemand von ihnen ver-  
lassen gehe.

Aus Freitag in der Fronleichnamswochen,  
9. Juni 1939, dem 7. Tag meiner 2. Leugn-  
sinn.

In nomine Patris et Filii et Spiritus Sancti.  
Scri. Teresa Benedicta a Cruce, O. C. D.

Edith Steinen testamentua.

tuan... Baita Edithen karten bila jardun be, Polonian ia 200 karta galduta ziranen bila...

**A. O.** Zein izan da zure lana?

**J. U.** Nire lana askotarikoa izan da: lehenengo eta behin, lan guztiak programatu eta zuzenduta gero besteen itzulpenak berrikusi eta jorratu Edithen eskuizkribuekin kontrolatuz. Lan hau oso zehatza izan da, batez be Edithen idazlan autobiografikoetan. Ikerlan asko egin izan da. Gero Edith beraren oharrrak izan ezik beste ohar guztiak jarri nituan, baita idazlan bakoitzari bere sarrera egin eta liburu bakoitzeko gehigarriak eta aurkibideak ipini, etab.

**A. O.** Egunen baten itzuliko ete dira Edith Steinen obrak euskerara?

**J. U.** Gauza gaitza iruditzen jat... Lehenengo eta behin ekonomia aldetik oso ilun ikusten dot: itzultzaileei ordaindu eta edizioa kaleratzea 250.000 Eurotik gora izango litzake. Eta beste aldetik, Edithen gai filosofikoak euskeratzea lan oso zaila....

**A. O.** Edith Stein hain emakume sakona eta santa danez, ez dozu pentsatu eskuetan dituzun beste lan guztiak alde batera utzi eta beragaz jarraitzea?

**J. U.** Bederatzi urte luze emon ditut Edithen eskuizkribu eta argitalpenekin. Eta nik hartu neban lana, hau da, bere idazlan guztiak gazteleraz argitaratzea bete dot... Eta lan hori amaitutzat emoten dot. Baliteke lanen bat egitea, baina ez dut argi ikusten: Edithen bizitza eta bere pentsamentuen ibilbidea bere eskuizkribuen arabera azaltzea, baina Edithen lana bukatutzat emoten dot. Zuk dinozu, zergaitik ez jarraitu... Ba, Edithen idazle eta ikertzaile asko ditu, modan dogun emakume argia danez asko idazten da berari buruz.

Nik gehiago nahi dot lehengo bideari jarraitu, hau da, Santa Teresaren lagun Ana San Bartolome kutunari buruz lan gehiago egin. Santa apal eta handi honek idazle gutxi ditu. Ana San Bartolome pertsonaia oso inportantea da gure Ordenaren alde-

tik, bera dogulako Santa Teresaren testigu bizia. Eta beste aldetik, bere esperientzia mistikoa be oso aberatsa dogulako. Eta guzti hori zabaltzea mesede handi bat izango dalakoan nago bai Elizarentzat eta bai Espaniako kulturarentzat be.

**A. O.** Ze lan dozu orain eskuetan argitaratzeko?

**J. U.** Aurten lau idazlan handi ditut eskuetan. Ana San Bartolomeri buruzkoak dira lan bi. Bata, Anaren idazlan guztien edizio barria, aurrekoa baino hobeagoa, ikertzaileentzat aproposa, gehigarriekin, izenen eta gaiari buruzko aurkibideekin, testu paraleloak eskeiniz (1600 or.). Erdi eginda daukat. Bestea, Anaren beatifikazioaren prozesuko testuak aukeratu, eta berari pertsonaia desberdinak idatzitako kartak argitaratu (800 or). Hau be erdi eginda daukat.

Fernando Agirregaz batera, Ondarroari buruz eta ondarrutarak idatzitako kronikak eta artikuluak errepublika denboran (1931-1937), batez be, orduko egunkarietan argitaratutakoak batzen be badihardut.

Eta *Karmel* aldizkariaren zuzendaritzan nire 25. urtea dala-eta, zenbaki berezi bi atarako ditut, eta bat neuk egindakoa izango da: *Karmel* (Karmengo Argia...) aldizkariaren historia guztiko bibliografia osoa (1931-2007), idazleen eta gaien araber (300 or.); erdi eginda daukat.

Eta urtearen amaierako beste lan berezi bat daukat buruan: Ana eta Edith santuei buruzko liburu berezi bat: “Dos mujeres extraordinarias, Ana de San Bartolomé (1549-1226) y Edith Stein (1890-1942): Itinerario de su pensamiento y escritos”.

**A. O.** Eta gero zer?

**J. U.** Ez dakit... Ana San Bartolomeri buruz lan asko ditut egiteko. Adibidez: hiztegi orokor bat, ikertzaile batzuen laguntzaz... Emakume harrigarria dugu Ana: beti Jainkoaren presentzian bizi izan zana, beti danei poztasuna emoten, bestei paregabeko zerbitzuan, minak arintzen, Kristoren antzera besteen penak bereganatzen, maitasunaren eraginez besteengan poza

eta bakea sortzen. Holako emakume santa handi bat ezagutze-ari komenigarri deritzat.

Eta hor dago orain 14 urte alde batera utzitako lan handi eta berezia be: "Euskal Herriko Elizaren historia". Urteak aurrera doaz eta lan historiko honek kemena eskatzen dau, eta denbora eta ikerketa gehiago; lan honen lehenengo liburua 1995. urtean argitaratu neban. Bibliografia batzen jarraitu izan dot... Urte horretatik aurrera beste 1.200 bat fitxa bibliografiko egin ditut...

**A.O.** Mila esker, Julen! Jainkoa lagun, izan daizuzala osasuna eta adorea, asmo itzel horreek aurrera ataratzeko.

**J. U.** Eskerrak zuri! Beste bat arte!

*Andoni Olea*